

Reinaré en España. Ezkioko elizan. O, my God!

Urteko azken egunean amak azken arnasa eman zuen, eta Urte Berri egunean eman genion lur hileta-elizkizunaren ostean. Hilkutxa aldare aurreraino eraman eta irten egin nintzen hilerrian itzaroteko. Elizan lehen ilaran geratu zen begi zorrotzeko batek espantuka deitu zidan gero Jesusen Bihotza ikusi zuela esanez, REINARÉ EN ESPAÑA mezuarekin! Lagunak bihar ramuna edo bestondoa izango zuela pentsatu nuen; edota 1931n Ezkion Ama Birjina “agertu” bazen, oraingoa osagarria izango zela agian, edo beste edozer gauza, baina ez egia izan zitekeenik.

Ba, bai, hantxe dago. Eta bat ez ezik, bi. Aldarearen alde banatan bi atril edo kantore daude, eta atrilaren azpialdea, hau da, ikus-entzuleen aldera dagoena, Espainiako armarrria da: han daude lehoia, gaztelua, Nafarroako kateak... Herkulesen bi zutabeen ordez bi aingeru, eta armarrri gehiena estaliz Jesusen Bihotza, azpian letra larriz idatzita REINARÉ EN ESPAÑA duela. “*Oh là là!, mon Dieu!, ce n’est pas possible!*”. Begiak igurtzi arren, hantxe segitzen dute, ez dira ameskeria edo irudipena.

Zur eta lur, galderaz betea nago: noiz eta nork jarri ote zituen? Eta ez ote ditu beste inork orain arte ikusi? Ez Ezkiotik



Iñaki Mendiguren

ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA

REINARÉ EN ESPAÑA.
Zur eta lur, galderaz betea nago: noiz eta nork jarri ote zituen? Eta ez ote ditu beste inork orain arte ikusi? Ez Ezkiotik igaro diren apaizek, ez elizako hautsak astintzen dituztenek...

igaro diren apaizek, ez elizako hautsak astintzen dituztenek, ez orain dela urte batzuk erretaula errenazentista zaharberritu zutenek, ez lehen ilaran egoten diren eliztarrek... Ala ikusi eta ez diete tripako minik egin? Ala ikusi, lotsatu

eta isilik egotea erabaki dute?

Ez naiz Eliza Katolikoko kide, eta ez naiz nor zer egin behar duen esateko. Baina atrilak normaltasun osoz bertan uztea gordin samarra iruditzen zait, adieraziko bailuke mezua oraindik indarrean dagoela, nostalgikoen pozgarri. San Migel goiaingeruak –herriko zaindaria– Satan bezala suntsitzea ere ez da burutazio ona, nazional katolizismoaren aztarna baliotsuak eta iraganaren lekuko esanguratsak baitira pieza horiek, ongi gorde beharrekoak. Itzultzailea naiz, baina euskaraturik edo EN ESPAÑA ordez EUSKADIN ipinita ere berdin uxatzen nau mezuak. Museoren batean pedagogiarako ikusgai jartzea litzateke onena.

Dena den, hau pasadizo umoretsu bat besterik ez ala zerbait larriagoaren metafora da? Denborak aurrera egin ahala, kristau-elizen (paraje haue-tan Erromako Eliza Katolikoaren) eta gizarte gehienaren arteko leizea gero eta kilometrikoagoa da. Eta ez bakarrik jendarte sekularra erreferentetzat harturik. Urruntasuna gero eta ozenagoa da eliza nagusien mezu, hizkera, erritu, liturgia, moral... ofizialen eta bestelako kristautasun bat bizi nahi dutenen artean. Eliza gehienak abaila bizian doaz museo(ago) bihurtzeko bidean. ■

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Eman izena!

Antolatzailea:

azkue
FUNDAZIOA

Laguntzailea:

ARGIA

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra
200€ diru txekera
ARGIA-n kolaboratzeko aukera

KATEGORIAK

Kultura / Gizarte eta politika / Aisialdia / Zientzia eta teknologia

Proposatuz gero edo gehien atsegin duzun bloga izena emateko epea: urtarrilak 16 - otsailak 13

blogetan.eus